

Tolosako Udalaren Alkate-Dekretu bidezko erabakiaren estraktua, Tolosako udalerriko irabazi-asmorik gabeko kultur-elkarteei diru-laguntzak banatzeko deialdia onartzen denekoa.

Diru-laguntzei buruzko Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluek diotenaren arabera, deialdiaren estraktua argitaratzen da, eta deialdiaren testu osoa “Base de Datos Nacional de Subvenciones” delakoan ikus daiteke:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Tolosako Udalaren web orrian

(www.tolosa.eus)

Lehena. Onuradunak: irabazi-asmorik gabeko kultur arloko Tolosako elkarteak

Bigarrena. Xedea: 2017an hainbat kultur programa eta jarduera burutzea.

Hirugarrena. Oinarriak:

- Tolosako udalaren diru-laguntzen ordenantza orokorra.

- Kulturako ordenantza berezia.

Laugarrena. Kopurua: gehienez 32.000,00€, 0800 481.01.33410 diru laguntzaren partidaren kargura. Diru laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera diru laguntzaren %75 ordainduko da.

Gainerako %25 jarduera edo egitasmoaren kontu justifikagarria jasotakoan ordainduko da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua: Udaletxeko erregistro bulegoan (UDATE). Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, G.A.O.n deialdiaren estraktua argitara ematen den hurrengo egunetik hasita (astelehenetik ostiralera, 7:15etik 14:15era). Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izango balitz, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko litzateke.

Tolosa, 2017ko ekainak 7.

Alkatea

Olatz Peon Ormazabal